



Etorkizuna
hobetzeko
lanean

2025eko iraunkortasun memoria

Aurkibidea

LEHENDAKARIAREN GUTUNA	3
FAGOR GARA	4
LEHIAKORTASUNA	12
GOBERNANTZA	22
PERTSONAK	33
INGURUMENA	49
GIZARTEA	59





Lehendakariaren gutuna

2025ean ere nahasia izan da testuingurua. Nazioarteko gertakariak azken urteotako ziurgabetasuna mantendu dute, baina, artean ere, emaitza txukunak lortu ditugu, osotara, 1.735 milioi euro fakturatuta.

Eraldaketa sakonean murgildurik da, esaterako, Taldeko kooperatiba askorentzako esangura handikoa den automobilgintzaren sektorea. Hori horrela, gure jakintzak, teknologiak eta esperientzia beste sektore batzuetara eramateko dibertsifikazio estrategiekin jarraitu dute gure kooperatibek. Estrategikoak izan daitezkeen jardueretarako akordioak ere egin ditugu nazioarteko zenbait enpresekin. Besteren artean, aluminio birziklatuko lingotearen ekoizpenean espezializatutako Ipar Amerikako Regen Aluminum enpresaren %51 eskuratu dugu, eta join venture bat eratzeko akordioa egin dugu Duoli Technology enpresa txinatarrarekin. Azken horrek, automobilgintzaren elektrifikazioaren bideko urrats sendoak ekartzearekin batera, Fagor Ederlanen Borjako (Zaragoza) planta berrirekitzea ahalbidetuko du.

Aurten ere, belaunaldi berriei zein ez horren berriei begirako ekimenak sustatu ditugu.

Jakin badakigu gure eredu kooperatiboa indartzeko beharrezkoa dela gure izatearen zergatiak, balioak eta ekarpenak ondorengoei zein kooperatibetako kideei transmititzea. Horregatik, formakuntza kooperatiboan sakontzen jarraitu dugu. Era berean, lanean jarraitu dugu gure kooperatibek belaunaldi berriak erakartzen segitu dezaten —besteak beste, FAGOR marka enplegatzaile gisa indartzeko plana landu dugu—.

Ingurumenaren alorreko konpromisoari ere eutsi diogu.

Kooperatibetan karbono azterna murrizteko planak zehaztu ditugu eta, horiek oinarri, Taldeko klima politika definitzeari ekin diogu. Gainera, energia berriztagarrien aldeko urratsak mantendu ditugu: 2025ean, mundu mailan kontsumitu dugun energiaren % 66 jatorri berriztagarrikoa izan da.

Bestetik, 3,1 milioi euro bideratu ditugu gizarte ekimenera, eta, horrekin, askotariko egitasmoak lagundu ditugu, hala Fagorreko kideok ahalduzko gizarte programak nola mugikortasun iraunkorrari, tokiko elikadurari, hezkuntzari eta nazioarteko elkartasunari lotutako proiektuak.










Gauza asko dira, bai, eta askotarikoak. Horiek guztiak ez lirateke posible izango Fagorreko kide bakoitzaren ekarpenik gabe. Beraz, Fagor osatzen dugun pertsona guztioi eskerrak emanez bukatu nahi nituzke lerro hauek.


Agur bero bat.

JOXEAN ALUSTIZA USANDIZAGA
Fagor Taldeko lehendakaria

Fagor gara

Soluzio teknologiko aurreratuak eskaintzen dizkiegu mundu osoko bezeroei. Eskaintza dibertsifikatua duen taldea gara, eta produktu katalogo zabala dugu:

-  Automobilgintzarako osagaiak
-  Etxetresnetarako osagaiak
-  Osagai elektronikoak
-  Deformazio bidezko makina-erreminta
-  Kontrol eta neurketa ekipiak
-  Muntaketa prozesuen automatizazioa
-  Ostalaritza eta sukaldaritzarako ekipamendu industrialia
-  Garbiketa ekipiak eta hotz komertziala
-  Jabetza industrial eta intelektualeko zerbitzuak



Askotariko sektoreetan diharduten eta esperientzia zabala duten **zortzi kooperatibek osatzen dute Fagor Taldea.**



fagoredenlantaldea



ONNERA GROUP



Euskal kooperatiba talde industrial handiena gara, eta, sorreratik, estuki gaude konprometituta komunitatearekin eta gizarte erronkekin.



8

kooperatiba



+ 69

egoitza



3

berrikuntza zentro



9.910

langile



1.735 M€

salmentetan



3,1 M€

konpromiso sozialean

Munduan zehar gaude

Gure kooperatibak mundu osoan daude eta askotariko sektoreetan dihardugu. 69 egoitza baino gehiago ditugu, gure bezeroei behar bezalako arreta eskaini ahal izateko.



Hamaika bezero ditugu

Nazioartekotzearen aldeko apustuak, besteak beste, aukera eskaintzen digu askotariko bezeroen beharrei erantzun egokiak emateko.











































Enpresa egiteko era propioa dugu

Kooperatiba izaera da gure bereizgarri nagusia. Beste enpresa eredu batzuekin alderatuz, hauek dira bereizten gaituzten ezaugarri nagusiak:



Gobernantza demokratikoa

Fagorren, langileak jabe ere bagara, eta gobernu organoetan, kudeaketa orokorrean eta erabaki estrategikoetan parte hartzen dugu, tartean, irabazien banaketan. "Bazkide bat, boto bat" printzipioa dugu oinarrian, eta, horrek, enpresa proiektuarekiko erantzunkidetasunez jardutera garamatza, eta, epe laburreko banakako interesen gainetik, guztion ongizatea eta kooperatibaren epe luzeko egonkortasun ekonomiko finantzarioa lehenestera.



Bazkide bat, boto bat



Ordainsari elkartasuna

Fagorren, modu solidarioan banatzen dugu sortzen dugun aberastasuna, ez dadin arrakala handiegirik sortu gehien eta gutxien irabazten dutenen artean.

Zenbat gehiago kobratzen dute zuzendari nagusiek plantillako batez besteko soldatarekin alderatuta?

x 3

Fagor, batez beste

x 55

Ibex 35¹ enpresak, batez beste



Interkooperazioa

Emaitzak, Fagor Taldeko kooperatiben artean banatzen ditugu, egoera onenean dauden kooperatibek okerren daudenak lagun ditzaten. Horrez gain, kooperatibaren batek enplegu arazoak dituenen, beste kooperatiba batzuetan birkokatzen ditugu lanik gabe dauden pertsonak.



Aurrerakin maila konpentsatzeko funtsa

934.430 €



Emaitzen birbanaketa egiteko funtsa

2.177.920 €



Gizarte konpromisoa

Gure irabazien %12 bideratzen dugu Gizarte funtsera, eta, hortik, hainbat gizarte ekimen sustatzen eta laguntzen ditugu.



4.306.490 €

Gizarte funtsera bideratutako dirua

¹ Ibexeko datua

Mondragonen parte gara

Mugimendu baten parte gara, kooperatiba talde handiago baten parte. Mondragon korporazioaren sorburua gara, munduko korporazio kooperatibo handienarena. 80 kooperatibak baino gehiagok osatzen dute, 140 filial baino gehiago ditu bost kontinenteetan, eta lau negozio arlotan dago antolatuta: Finantzak, Industria, Banaketa eta Ezagutza. Mondragonek, bere unibertsitatea eta 12 ikerketa eta garapen zentro ditu, kooperatibak talentuz hornitzeko eta haien berrikuntza estrategiak bultzatzeko. Nazioartean, lehiakortasun inklusiboko eredutzat hartzen da korporazioa.

Orotara, Mondragoneko kooperatibok 10.000 milioitik gora euro fakturatu ditugu 2025ean 70.000 pertsona baino gehiagok egindako lanari esker. Pertsona horien %40 industriaren alorrean dabil.

Mondragonen baditugu lankidetzarako eta elkartasunerako hainbat mekanismo, erresilienteagoak egiten gaituztenak eta lehiarako gaitasun handiagoa eskaintzen digutenak.

EMAITZEN BIRMOLDAKETA

Eraitza positiboak dituzten kooperatibek beren irabazien ehuneko bat bideratzen dute ekitaldia eraitza negatiboekin amaitu duten kooperatiben galeren zati bat konpentsatzera, eta, horrela, haien susperraldi ekonomikoan laguntzera. Taldeko kooperatiba guztiek izan badituzte eraitza positiboak, euren artean banatzen da etekinen zati bat, irabazi handienak eta txikiagoak izan dituztenen arteko elkartasun ariketa gisa.

ENPRESA GARAPENERAKO LAGUNTZA

Mondragoneko kooperatiba guztiok eraitza positiboaren %5aren baliokidea den inbertsio bat egiten dugu urtero Mondragon Inversiones S. Coop.-en. Besteak beste, kooperatiben nazioarteko hedapenean laguntzeko eta hazkunde prozesuetan enpresa proiektuak bultzatzeko erabiltzen da, baita kooperatiben ondare egiturak indartzeko ere.

ENPLEGURAKO LAGUNTZA

Mondragoneko kooperatibok, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko erakunde bateko kide gara (LagunAro). LagunAro, kooperatibetako bazkideek (mutualistek) egindako ekarpenekin eraitutako funts bat kudeatzeaz arduratzen da, eta hainbat prestazio eskaintzen ditu. LagunAroren enplegurako laguntza, kooperatiben arteko lankidetzaren mekanismo klasikoetako bat da. Oro har, langileak birkokatzeko eta bestelako prestazio ekonomikoak eskaintzeko irtenbideak dira, langabeziak kooperatibetan dituen ondorioak arintzera bideraturikoak.

Lankidetzaren mekanismoei esker

erresilienteagoak gara eta lehiarako gaitasun handiagoa dugu



Iraunkortasunarekin konprometituta gaude

Fagor 2030 iraunkortasun estrategia dugu onartuta. Honela daukagu zehaztua 2030. urtera begirako bisioa:

“Talde kooperatibo industrialak, lehiakorra eta berritzailea, enpresa egiteko daukan modu demokratiko, inklusibo eta iraunkorragatik ezaguna. Kide izateaz harro dauden pertsonak osatzen dute, giza garapen iraunkorrean nazioarteko erreferentzia den lurraldean”.

Gure proiektu kooperatiboa berritzeko aukera moduan ikusten dugu iraunkortasuna, eta aitzindari izan nahi dugu kooperatibismoa hark ezaugarritutako garai berrira egokitzeko prozesuan. Hori horrela, bost konpromiso nagusi ditugu geure eginak:

01.

Gure negozioak eraldatzea, ekonomia digital eta zirkular baten testuinguruan **lehiakorrek izan eta enplegua sortzen jarraitzeko**.

02.

Gure gobernantza eredu **demokratikoa hobetzen** eta garatzen jarraitzea.

03.

Enpresa kultura aurreratu bat garatzea, gure pertsonen beren onena eman dezaten.

04.

Gure produktu eta ekoizpen prozesuek **ingurumenean sortzen duten inpaktua murriztea**.

05.

Gizartearen autoeraketa sustatzea, hiri eta komunitate iraunkorrak lortzeko.



**FAGOR 2030:****GURE ESTRATEGIAREN EGUNERATZE PARTEKATUA**

Prozesu garrantzitsu bat abiatu dugu 2025eko udazkenean: Fagor 2030 estrategiaren berrikuspena. Gure bide orria gaurkotzea da helburua, datozen urteetako erronkei modu eraginkorragoan erantzuteko.

Prozesuak, Taldeko ordezkari-tza zabalaren arteko lankidetzaz izan du oinarri:

- Elkarriketa sakonak: banakako saioak egin dira kooperatibetako gerenteekin, lehendakariekin eta iraunkortasun arduradunekin, errealitate bakoitzaren beharrak eta ikuspegiak jasotzeko.
- Lan saio kolektiboak: marko orokorra definitzeko topaketak antolatu dira, Fagor Taldeko hainbat ordezkariarekin batera.
- Kokreazioa eta kontrastea: lehen proposamena lantzeko, batzorde misto bat osatu dugu kooperatibetako gerente, lehendakari eta Taldeko kideekin. Espazio honetan, estrategia berriaren oinarriak kontrastatu eta elkarrekin findu ditugu, etorkizuneko bide orria guztion artean adostuz.

Lanketa honekin bermeak jarri nahi dira Fagor 2030 estrategia berria bat etor dadin gure izaerarekin, eta, aldi berean, baliagarri izan nahi du kooperatiba guztien arteko loturak sendotzeko. Aurreikuspenen arabera, 2026an bukatuko da estrategiaren berrikuste prozesua, urte horretan finkatuko baita Taldearen norabide berria.

IRAUNKORTASUN MEMORIA 2025

Lehiakortasuna





TALDE LEHIAKORRA ETA BERRITZAILEA GARA

Lehiakortasuna lankidetzarekin eta justizia sozialarekin uztartzen jakin duen talde kooperatiboa gara. Enpresa, bazkide langileen, eta, oro har, gizartearen beharrak astzeko tresna da. Lehiakorra eta errentagarria izan behar da bere eginkizuna betetzeko.


Banatu egiten dugu sortutako aberastasuna

Honako hauek dira Fagor Taldeko emaitza ekonomiko nagusiak:


	2023	2024	2025
Fakturazio kontsolidatua	1.756 M€	1.781 M€	1.735 M€
Irabazi kontsolidatuak	75,36 M€	76,15 M€	66,76 M€
Irabaziak Euskal Herri mailan	54,80 M€	57,53 M€	43,45 M€
Irabazi kontsolidatuetatik Euskal Herrian geratzen den %	%73	%76	%65
Finantza zor garbia/EBITDA ratioa	1,26	1,1	1,04
Independentsia ratioa	0,74	0,77	0,89

Salmentak 2024koak baino zerbait murriztagoak izan dira, eta errentagarritasuna ere pixka bat jaitsi da, nazioarteko testuinguru nahasiaren ondorioz. Hala ere, finantza adierazle nagusiek eboluzio positiboa izan dute, egoera sendo bat islatuz.

Finantza ratioen **bilakaera:**



2024ko datuekin **alderatuta:**



%3,8

Salmentekiko
%3,8ko irabaziak izan ditugu

Honela banatu dira Fagor Taldeko kooperatibek mundu mailan izandako irabaziak:

66,8 M€

Fagor Taldeko kooperatiben artean mundu mailan irabazitakoa



4,3 M € bideratu ditugu

Gizarte funtsera

23,3 M€

Filialetan
geratzen dena

43,5 M€

Euskal Herrian
geratzen dena



4,4 M€

Mondragoneko
elkartasun
mekanismo
tara bideratutakoa

3 M€

Fagor Taldeko
ordainsari
elkartasun
funtsera


36 M€

Banatzeko
geratzen dena




2,2 M€

Fagor Taldeko
emaitzen
birbanaketara




Bazkide eta langileei

22,8 M€



Erreserba funtsetara

8,9 M€



IPDKra

4,3 M€

GURE KONPROMISOA

Gure negozioak eraldatzeko lanean jarraitzen dugu, ekonomia digital eta zirkular baten testuinguruan lehiakorrak izan gaitzen eta enplegua sortzen segi dezagun.



GURE KONPROMISOA | LEHIAKORTASUNA

Berrikuntzan sakontzea, negozioak eraldatzeko

Berrikuntza funtsezkoa da etorkizuneko ekonomia digital eta zirkularra egokitu ahal izateko. Berrikuntza eredu irekian sinesten dugu, eta, norabide horretan, lurraldeko berrikuntza eta ekintzailtza ekosistemaren garapenean laguntzen dugu, besteak beste, [Saiolan](#) berrikuntza eta ekintzailtza agentziaren eta [Mondragon Unibertsitateko](#) gobernu organoetan aktiboki parte hartuz.

GURE KOOPERATIBETAKO PROIEKTUAK

Hauek dira gure kooperatibek 2025. urtean garatutako berrikuntza proiektu eta lan lerro esanguratsuenak:



COPRECI

AUTONOMIA ETA IRISGARRITASUNA

Coprecik ikusmen desgaitasuna dutenentzako indukzio plaka irisgarria garatu du Inntro proiektuan. Ahots kontrola eta teknologia egokituak erabili ditu pertsonen autonomia eta segurtasuna bermatzeko.

[Info+](#)




FAGOR ELECTRÓNICA

GELA ZURI BERRIA

Fagor Electrónicak erdieroaleen ekoizpen gaitasuna handituko du gela zuri berri batekin, energia eta ur kontsumoa nabarmen murriztuz eta eraginkortasun teknologikoa hobetuz.

[Info+](#)



FAGOR AUTOMATION

ERALDAKETA IRAUNKOR ETA DIGITALA

Industria prozesuen iraunkortasuna eta digitalazioa uztartzen dituen Orlegi proiektua landu du Fagor Automazionek, ekoizpen eredu eraginkorragoak eta ekonomia zirkularrean oinarritutako estrategiak bultzatuz.

[Info+](#)



ONNERA GROUP

KUDEAKETA ADIMENDUNA

Baliabideen kontsumoa denbora errealean monitorizatzea eta garbiketa zikloen eraginkortasuna optimizatzea lortu du Onnera Groupek. Besteren artean, ingurumen inpaktua murriztu du horrekin.

[Info+](#)



GALBAIAN

TALENTUA ERAKARTZEA ETA GARATZEA

Jabetza Industrial eta Intelektualaren (IP) bidez talentua kudeatzeko metodologia eta autoebaluazio tresna berria landu ditu Galbainek.

[**Info+**](#)



MONDRAGON ASSEMBLY

BERRIKUNTZA FOTOVOLTAIKOA

Mondragon Assemblyk panel fotovoltaiko malguak ekoizteko linea berria garatu du, mugarri bat jarritz energia berriztagarrien ekoizpenean.

[**Info+**](#)



FAGOR EDERLAN

EKONOMIA ZIRKULARREKO URRATSAK

Fagor Ederlanek jauzi estrategikoa eman du mugikortasun elektrikoan eta nazioarteko hedapenean, aliantza berriak eginez eta ekonomia zirkularraren aldeko apustua indartuz.

[**Info+**](#)



FAGOR ARRASATE

ALTZAIKU ELEKTRIKOA

Fagor Arrasatek motor elektrikoaren laminak fabrikatzeko prentsa berria garatu du, mugikortasun elektrikoaren sektoreko gaitasun industrialak eta kalitate estandarrak indartuz.


[**Info+**](#)

GURE KONPROMISOA | LEHIAKORTASUNA

Enplegua sortzen jarraitzea

Kalitatezkoa eta iraunkorra den enplegua sortzea eta mantentzea da gure helburu nagusia, belaunaldi berriek ere aukera izan dezaten gure kooperatiben parte izateko.


Fagorreko **pertsonak:**



Fagorreko langileen

%54 Euskal Herrian gaude

01. Generoaren arabera:



02. Adinaren arabera:

30 urtetik beherakoak

765

Emakumeak

%20

153

Gizonak

%80

612

31 urtetik 50 urtera

2.758

Emakumeak

%26

708

Gizonak

%74

2.050

51 urtetik gora

1.783

Emakumeak

%30

542

Gizonak

%70

1.241

GURE KONPROMISOA | LEHIAKORTASUNA

03. Kontratu motaren arabera:

Behin betiko bazkideak

3.826

Emakumeak

%25

973

Gizonak

%75

2.853

Iraupen mugatuko bazkideak

804

Emakumeak

%28

222

Gizonak

%72

582

Euskal Herriko
langileen **%87**
bazkideak gara

04. 2025eko irteerak:

Jubilazioak

93

Emakumeak

%22

20

Gizonak

%78

73

Birkokatuak

142

Emakumeak

%37

52

Gizonak

%63

90

Besteren konturako langileak

534

Emakumeak

%30


156

Gizonak

%70

378

05. Langileen bilakaera:



	2023	2024	2025
Besteren kontrako langileak	592	494	534
Birkokatuak	268	200	142
Iraupen mugatuko bazkideak	52	722	804
Behin betiko bazkideak	4.183	3.825	3.826
GUZTIRA	5.482	5.340	6.466

2023tik, egonkor mantendu da gure enplegua, eta gora egin du bazkide kopuruak



IRAUNKORTASUN MEMORIA 2025

Gobernantza

LURRALDEAN ERROTUTAKO TALDE DEMOKRATIKOA GARA

Ekoizpen baliabideen jabetzan, emaitzetan eta kudeaketan esku hartzen dugu bazkide langileok, eta Batzar Nagusia da gure organo nagusia. Hartan hartzen ditugu gure etorkizuna zehazten duten erabaki garrantzitsu guztiak.

Aberastasunaren banaketa solidarioarekin batera, izaera demokratikoa da gure ezaugarria. Gure esperientziak, enpresaren arlora zabaldu du demokrazia, eta "bazkide bat, boto bat" printzipioaren arabera jarduten dugu. Elementu bereizgarri horri esker, erakunde sendoak eraiki ditugu, lurraldearekin eta gizartearekin lotura handia izateaz gain, kideei beren beharrak asetzeko eta bizi kalitate onerako aukerak eskaintzen dizkietenak.



Bazkideak gara gure gobernantzaren oinarria

Bazkidetza izaeraren gainean eraikitzen dugu kooperatiben eta Taldearen gobernu. Kontseilu errektoreen (kooperatiben gobernu organoen) onarpen beharra duen izaera hori lortzeko, kapital ekarpena egin behar du norbanakoak. Urtero eguneratzen dugu ekarpen horren zenbatekoa $-18.872,84$ eurokoa izan da 2025ean-. Egin beharreko ekarpena berdina da pertsona guztientzat, erakundean izango duen lanpostua edozein dela ere. Pasa berri den urtean egokitzapen bat egin dugu gure araudian: kapital ekarpena egiteko, orain arteko 36 hilabeteko gehieneko epea 48 hilabetera zabaldu dugu (legeak baimentzen duen zabalena), bazkideari prozesu hau errazteko helburuarekin.

Hasierako derrigorrezko ekarpen hori, izaera izenduna duena, kapital sozialaren parte bihurtzen da. Kapital hori haziz edo murriztuz joango da, bazkidetza izaera mantentzen duen urteetan kooperatibak lortzen dituen emaitza ekonomikoen arabera. Irabazi edo galera horiek lan egindako denboraren eta erakundean duen lanpostuari dagokion indizearen arabera banatuko dira. Bazkidea erretiro adinera iristean edo borondatezko baja hartzean, kapitala itzuliko dio kooperatibak, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Bazkide langile bakoitzak boto bat du, erakundean duen postua edo kooperatiban duen kapitala edozein dela ere. Kide guztiek esku hartzen dute haien ordezkari organoen eta gobernu organoen aukeraketan, baita sozietatearen etorkizuna erabakitzeke orduan ere. Gainera, bazkide langileak dira ekoizpen bitartekoen jabe.


Bazkidetza behin betikoa edo iraupen mugatukoa izan daiteke. Izenak berak erakusten du figura bat behin behinekoa dela; ezberdina da iraupen mugatuko bazkideek egin beharreko kapital ekarpena edota emaitzetan duten parte hartzea. 2025ean, 352 bazkide berri egin ditugu. Iraupen mugatuko bazkideak dira gehienak.

01. 2025ean egindako bazkideak


Bazkide berriak

352


30 urtetik beherakoak



31 urtetik 50 urtera bitartekoak




51 urtetik gorakoak




02. Behin betiko bazkide berrien bilakaera


2023



2024



2025




Gobernantza egitura propioa dugu

Bazkide langileok gara gure proiektuaren erdigunean gaudenak, kooperatiben egunerokoa kudeatzeko eta etorkizuneko bidea eraikitzeko arduradunak.

Hori oinarrian, hainbat erabakimen organo ditugu Talde mailan.

Gobernu organoak



Batzar Nagusia


Taldeko kooperatiben borondatea adierazteko organo gorenena da, kooperatibei eta bazkideoi eragiten digun gaien buruz eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko erata.

Taldeko bazkide diren kooperatiba bakoitzak ordezkari bat du 25 bazkide langileko (bazkide kopuru totala txikiagoa den kasuetan ordezkari bat bermatzen da, gutxienez, ordezkari batekin).

Batzarrean aukeratzen dugu Taldeko lehendakaria, Kontseilu Orokorreko burua izango dena.

Batzar Nagusiko ordezkariak lau urterako izendatzen ditugu, eta, bi urtean behin, partzialki berritzen dira.


127 kide



Kontseilu Orokorra

Taldea ordezkatzeko eta gobernatzeko organoa da. 14 kide titularrek eta Batzar Nagusiak zuzenean hautaturiko lehendakariak osatzen dute. Taldeko administrazio organoa da, lehen mailako kooperatibetako Kontseilu errektoreen baliokidea. Kooperatiba bazkide bakoitzak kontseilari bat du gutxienez; eta kooperatiben bazkide langile kopuruaren arabera izendatzen dira gainerako kideak. Kontseilu Orokorrean bertan aukeratzen dira lehendakariordea eta idazkaria, organoa osatzen dutenen artean.

15 kide



Zaintza Batzordea

Organo honek, batez ere, ahalmena du urteko kontuak berrikusteko, eta, Batzar Nagusian aurkeztu aurretik, soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko txostena egiteko. Horrez gain, hauteskunde prozesuak zaintzea eta horien egokitasuna bermatzea dagokio, baita Batzar Nagusian boto eskubidearen inguruan izan litezkeen gorabeherak ebatzea ere.

Hiru kide titularrek osatzen dute, eta Batzar Nagusiak aukeratzen ditu. Hiru urtean behin berritzen da.

3 kide




Lehendakarien Batzordea

Kontseilu Orokorren eta Idazkari Nagusiaren organo kontseilaria eta aholkularia da. Arauak proposatzeaz eta agindutako gaiak kudeatzeaz arduratzen da, hala nola, gizarte funtsen banaketaz eta euskararen normalizazioaz.

Kooperatiba guztietako lehendakariak osatzen dute, eta lehendakari propioa du.

9 kide




Kontseilu Soziala

Bazkide langileek Taldeko administrazioan parte hartze iraunkorra izan dezaten eraturako organoa da. Kontseilu Orokorraren aholkularitza eta kontsulta izaera du, eta bazkide langileei eragiten dieten gaietarako buruzko irizpena ematea eta kooperatibetako Kontseilu sozialak koordinatzea dagokio.

Gehienez ere 16 pertsonaz osaturako organoa da. Kooperatiba bakoitzari, gutxienez, ordezkari bat dagokio, eta kooperatiben tamainaren arabera izango dira gainerako ordezkariak.

Urtero berritzen da Taldeko Kontseilu Soziala.

14 kide



Idazkari Nagusia

Kontseilu Orokorrak izendatutako pertsona da, eta Taldeko kargu betearazle gorena. Bere lantaldearekin batera, Taldearen plan estrategikoak eta kudeaketa planak diseinatzen eta egikaritzen ditu. Bestetik, Kontseilu Orokorrak onar dezan aurkeztzen diren proposamen teknikoak egitea ere badagokio.


1 kide



Zuzendaritza Kontseilua

Idazkari Nagusiaren aholkularitza organoa da. Taldeko kooperatibetako zuzendariak osatzen dute.

9 kide






Koperatibetako gobernantza

Taldeko gobernantza egituraz gain, kooperatiba bakoitzak bere gobernantza organoak ditu.

Kontseilu errektoreak | 63 kide


Emakumeak

%44



Gizonak


%56



Zaintza batzordeak | 21 kide


Emakumeak

67%



Gizonak


33%



Kontseilu sozialak | 142 kide


Emakumeak

%25



Gizonak


%75



Zuzendaritza batzordeak | 74 kide

Emakumeak

%26



Gizonak

%74





GURE KONPROMISOA

Gure gobernantza eredu demokratikoa garatzen jarraitzen dugu.

Etorkizuneko erronkei erantzuteko oinarri sendoak eraikitzea

Gobernantza Onaren proiektua abiarazi dugu, egungo eta etorkizuneko erronkei esperientzia kooperatiboaren balioetatik erantzuteko helburuarekin. Ekimen honen muina oinarrizko marko bateratu bat adostea izan da, kooperatiba guztietan gobernantza eredu eraginkor eta partekatua bermatzeko.

Proiektua, lanketa kolektibo baten emaitza da: lehenik, informazio hitzaldiak egin genituen organo sozialetako kideekin, eta, ondoren, kooperatibetara zabaldu zen prozesua. Behin betiko egitasmoak bi zutabe nagusi ditu: batzar nagusiek onartutako estatutu-erregelamendu aldaketak eta Kontseilu Orokorrek garatu beharreko lan ildoak.

Profesionalizazioa eta dedikazioa

2025eko batzar nagusietan hainbat aldaketa esanguratsu onartu ditugu Estatutu Sozialetan eta Barne Erregelamenduan, kudeaketaren konplexutasunari aurre egiteko:

- **Gobernantza Onaren Batzordea:** kudeaketa eta administrazioa gero eta zorrotzagoak direnez, batzorde espezifiko hau eratuko da 100 bazkide langiletik gorako kooperatibetan. Organo sozialetako kideen formazioa eta lanketa bultzatzea da helburua, erantzukizun horiek hartzeko egokienak diren pertsonen prestakuntza oinarri.
- **Karguen izendapena eta Idazkaritza Teknikoa:** hemendik aurrera, kooperatibetako batzar orokorrek aukeratuko dituzte lehendakaria eta bokalak; eta, Kontseilu errektoreak, bere kideen artean izendatuko ditu lehendakariordea eta idazkaria. Gainera, gobernantza egokia bermatzeko, Idazkari Tekniko profesional bat izateko betebeharra izango dute 250 bazkide baino gehiagoko kooperatibek.
- **Dedikazioa indartzea:** kooperatiba bat gidatzeak denbora eta konpromisoa eskatzen ditu. Horregatik, dedikazio neurri berriak finkatu ditugu kooperatibaren tamainaren arabera.

Tresnak eta ebaluazioa

Aldaketa estatutarioekin batera, gobernantza eredu egikaritzeko hainbat tresna lantzen ari da Kontseilu Orokorra:

- **Eskuliburu Bateratuak:** organoen funtzioak, erantzukizunak eta profilak zehazteko gida dokumentuak onartu dira. Kontseilu Errektorearena jada osatuta dago, eta Kontseilu Sozialarena lantzen ari gara.
- **Gaitasunen garapena:** organoetako kideentzako oinarrizko formazio programak diseinatzen ari gara, kargua hartzeko nahitaezko baldintza gisa.
- **Plusen aplikazioa:** kargua hartzeagatik kideek plusen galerarik izan ez dezaten, konpentsazio sistema bat aplikatuko da Plusen Arauari jarraituz.
- **Autoebaluazioa eta diagnostikoa:** gobernantza dinamikaren kalitatea neurtzeko, autoebaluazio prozesuak eta diagnostiko tresnak jarri dira martxan, organoen funtzionamendua etengabe hobetzeko.


Heziketa kooperatiboa sustatzea

Garrantzia berezia ematen diegu bazkide berrien harrera kooperatiboari eta gobernu organoetan parte hartzen duten bazkideen trebakuntzari. Heziketa kooperatiboa oinarritzko palanka da erantzunkidetasunaren kulturaren eragiteko.


Oro har, identitate kooperatiboa indartzea, kooperatibaren funtzionamendua ezagutzea eta gobernantza kooperatiboa ulertzea dira helburuak -kudeaketari dagozkion bestelako edukiak ere eskaintzen dira organoetako kide berrientzako saioretan-. Formazio saio horietan, Fagorri buruzko edukia ere lantzen da partaideekin, Taldearen eskualde izaera eta zentzuaren, antolamenduaren eta eskumen esparru ezberdinen ingurukoak partekatuz.

2025ean heziketa kooperatiboetako saioretan parte hartu duten pertsonak:


Bazkide berrientzat egindako aurrez aurreko formazioak | 59 kide




Bazkide berrientzat, murgiltzen modalitatea (online) | 28 kide




Kontseilu errektoretako kideentzat egindako formazioak | 7 pertsona



Zaintza batzordeetako kideentzat egindako formazioak | 14 pertsona



Kontseilu sozialetako kideentzat egindako formazioak | 40 pertsona



Komunikazioan eta gardentasunean sakontzea

Bazkideengandik gertu egon eta konfiantzazko harremanean sakonduguran, urrats berriak egin ditugu barne komunikazioan, euskarri berriak sortuz eta sortuak genituen zenbaiten erabilera eraginkorrago bilakatuz. Finean, komunikazioa oso loturik dago gardentasunarekin. Horretan sakontzea funtsezkoa da kooperatiba taldeko kideak gertuago egon daitezen gobernu organoengandik, eta, oro har, proiektu sozioenpresarialarengandik.

2025ean, nagusiki, kanpoko komunikazio euskarrietan jarri dugu mira. Euskarri berriak sortu ditugu, batez ere, sare sozialei begirako ikus-entzunezkoetan sakonduz. Eta orain arteko euskarriak mantendu ditugu (webgunea, sare sozialak, prentsa agerraldiak...). Horrekin batera, barne komunikazioari loturiko euskarriak hobetzen jarraitu dugu (barne buletina, Bihargin aldizkaria, kartelak...).



Barne buletina: 43.250 ikustaldi.



Webgunea: 64.880 ikustaldi.



Sare sozialak (LinkedIn, Instagram eta X)
172.300 ikustaldi.

170.000

**ikustaldi
baino
gehiago izan
ditugu sare
sozialetan**

IRAUNKORTASUN MEMORIA 2025

Pertsonak





PERTSONAK ERDIGUNEAN DITUEN TALDEA GARA

Harrotasunez esan dezakegu pertsonen eta komunitatearen ongizatea bilatzen duen eredia dela gurea. Kooperatiben helburua ez da kapitala metatzea, gure pertsonen eta komunitateak epe luzera izango dituzten beharrak asetzea baizik.

Pertsonok eraikitzen dugu etorkizuna, partekatutako proiektuarekiko erantzunkidetasunez, eta belaunaldi berriei guk jasotakoa baino kooperatiba hobea uzteko konpromisoarekin.

Elkartasuna, lankidetzarekin batera, ardatz garrantzitsua da Fagor Taldearen egituratzean eta norabidetzean.



Gure ordainsari sistema elkartasunean oinarritzen da

1-6

Ordainsari mailen arteko gehieneko aldea



Pertsonen eta erakundeen arteko berdintasunean eta elkartasunean sinesten dugu. Elkartasunaren aplikazio praktikoa gure ordainsari sisteman ikusten da argien. Gure kooperatibetan, 1-6ra dago mugatuta ordainsarien maila.

Maila profesional baxuenetan dauden langileek (%51) **kooperatibak sortzen duen aberastasunaren %41 jasotzen dute**

Lanaren ordainsari nahikoa, bidezkoa eta solidarioa aldarrikatzen dugu pertsona guztientzat, beti ere, gure kooperatiben benetako aukeren barruan. Bazkideok ez dugu soldatarik jasotzen, kooperatibek ekitaldiaren amaieran lortzea espero duten mozkinaren hileko aurrerakina baizik.

Urtero finkatzen dugu aurrerakinaren maila -horri dagokion arauaren arabera-. Hor, kooperatiba bakoitzaren ekonomia eta ondarea hartzen dira kontuan, eta behar adinako autonomia eta malgutasuna mantentzen dira Taldeko kooperatiba bakoitzak aukera izan dezan bizkor egokitzekeo testuinguru ekonomikoetara.


Kooperatiben aurrerakinaren artean sor daitezkeen aldeak konpentsatzeko, Ordainsarien Elkartasun Funtza (OEF) daukagu. Funtz hori urtero elikatzen da kooperatiben emaitzetatik, horretara bideratzen baita ekitaldiko irabazien %5. 2025ean, kooperatiba bakarrak jaso du dirua funts horretatik: 519.000 euro jaso ditu.

Finkatutako aurrerakin mailak ezarriko du lanpostuek esleituta duten indizearen balioa. Gure kooperatibetako lanpostu guztiek indize estruktural bat dute zehaztuta, lanpostuaren eskakizunen arabera. Indize estruktural horren arabera izango da lanpostu horretan dagoen pertsonak jasoko duen ordainsaria. Fagor Taldeko Balorazio Batzordeak zehazten ditu kooperatiba guztietako lanpostuen indize estrukturalak. Horrela, kooperatiba

barneko eta kooperatiben arteko oreka bermatzen dugu. Lanpostuak, indize estrukturalaren arabera bost franjatan multzokatzen ditugu.

Gure bereizgarri nagusienetako den ordainsari sistema horrek, aberastasunaren banaketa orekatua ahalbidetzen du franja edo maila profesionalen artean.

Pertsona eta ordainsarien banaketa



1. Franja lan indize tartea 1,00 - 1,35

2. Franja lan indize tartea 1,40 - 1,60

3. Franja lan indize tartea 1,70 - 2,00

4. Franja lan indize tartea 2,10 - 2,40

5. Franja lan indize tartea 2,50etik gora

Ordainsarien banaketa

Langileen banaketa

Elkartasuna enpleguan

LagunAro da Fagor Taldeko kooperatiba guztietako bazkideentzako Borondatezko Gizarte Aurreikuspenarako Erakundea (BGAE). Funtsean, bi motatako prestazioak ematen ditu: sistema publikoarekin modu mistoan estaliko diren kapitalizazio prestazioak (pentsioak) eta banaketa prestazioak. Azken horien artean, nabarmentzekoak dira osasun laguntza, aldi baterako ezintasuna eta enplegurako laguntza.

Hautaketa araua

1997tik Taldean indarrean egon den Bazkide berrien sarrerarako araua 2000. urtean aktibatu genuen azkenengoz, Taldeko kooperatiba ezberdinetako zuzeneko postuetan bazkideak egiteko erabakia hartu ondoren. Arau horren aplikazio eremua, zuzeneko lanpostuetan bazkideak egitera egon da mugatua. Hautaketa prozesuan aplikatu beharreko faktoreak eta ponderazioa erregulatu ditu.

Gaur egun, bazkide berriak egiteko erabakia bestelako irizpideetan oinarritu behar dela hobetsita, beharrezkotzat jo dugu egungo errealitate sozialera egokitutako arau markoa izatea. Hori horrela, 2025ean, Hautaketa arau berria onartu dugu Batzar Nagusian. Bazkide berriak hartzeari buruzko aginduak eta bazkide izateko gutxieneko eskakizunak jasotzen dira bertan. Arauak, 1 franjako postuetarako sarrera irizpideak ere definitzen ditu, aldi baterako zein behin betiko bazkidetzarako oinarriak zehaztuz.

Arau marko horren barruan bada ere, kooperatiba bakoitzarena da bazkide berriak egiteko azken erabakia -postu eta franja guztietan-. Kanpotik inor hartu aurretik, ahal den guztietan, lehentasuna eman behar diegu eskatutako eskakizunak betetzen dituzten bazkideen barne promoziorako aukerei.

Birkokatzea

Birkokatzeari dagokiona da enplegurako laguntza mekanismoen artetik aipagarriena. Birkokatzeak funtsezko mekanismo dira jarduera mailaren jaitsiera duten kooperatibetan bertako bazkide langileen enplegarritasuna bermatzeko. Mekanismo horren bidez, jarduera maila altuagoa duten eta lanik barik dauden pertsona horiek onartzeko gaitasuna duten kooperatibetan birkokatzen dira jarduera mailaren jaitsiera duten kooperatibetako bazkideak. Birkokapenak, aldi baterakoak edo behin betikoak izan daitezke. Behin betiko birkokapenen kasuan, bazkideak kooperatiba hartzailean hartuko du bazkide izaera, kooperatiben arteko lekualdaketaren bidez.

Fagor Taldean jarraipen berezia egiten diogu Fagor Etxetresnetako bazkide ziren eta aldi baterako birkokatuta jarraitzen duten pertsonen. 2025ean, 5 urtetako kontsolidazio plangintza onartu du Taldeko Kontseilu Orokorrak kolektibo horri behin betiko irtenbidea emateko helburuarekin.

Plangintza horren barruan, eta Taldeko kooperatibek hartutako erabakien ondorioz, 2025ean 55 pertsona kontsolidatu dira Fagorren, LagunAro mailan kontsolidatutako bazkideen %72, hain zuzen ere. Azken lau urteetan, 164 bazkide birkokatu dira behin betiko Fagorreko kooperatibetan -horietatik %90 dira Fagor Etxetresnetako bazkide ohiak-.

2025eko abenduaren 31n, Fagor Etxetresnetako 166 bazkide zeuden aldi baterako birkokatuta, horien %63, Fagor Taldean. Horiez gain, beste kooperatiba batzuetako 38 bazkide zeuden aldi baterako birkokatuta Fagorreko kooperatibetan.

Egutegi mugikorra

Enplegurako laguntza prestazioak aukera ematen die kooperatibei Egutegi mugikorren modalitatea ezartzeko, jarduera mailan izan ditzaketen goranzko joerei, eta, batez ere, beheranzkoei, aurre egiteko. Beheranzko egutegiak sortutako ordu negatiboak berreskuratzeko aukerarik ez balego, ordu horien finantziarako laguntza eskainiko du prestazioak.

Erretiro aurreratua

Erretiro aurreratuen sistema da Fagor Taldeko bazkideon beste onuretako bat. Borondatezko, izaera orokorreko eta berdintasunezko planek osatzen dute, eta bazkideon interes indibiduala kooperatibenekin uztartzea ahalbidetzen dute. Plan horiei esker, bazkideok, aukera daukagu erretiroa aldeztatik hartzeko; eta, kooperatibek, plantillak gaztetzeko prozesuak bultzatzeko.

Kooperatibek egindako ekarpen ekonomikoen bidez gauzatzen dira erretiro aurreratuko planetarako laguntzak: planarekin bat egindako bazkidearen izenean egiten dira ekarpen horiek, eta, zehaztutako baldintzen arabera, legezko erretiro adina aintzat hartuta, erretiroa hartzeko data hiru eta bost urte artean aurreratu dezake bazkide bakoitzak.

Foru ogasunek zerga araudietan egindako aldaketek, planaren kudeaketa irizpideak berrikustera eta egokitzera eraman dute Fagor Taldea. 2025ean ere planaren indarraldia onartu da, 1976an jaiotako bazkideei zuzendutako planteamendua, hain zuzen. 42.906,59 eurokoa izan da laguntzaren zenbatekoa.



GURE KONPROMISOA

Gure pertsonak euren onena eman dezaten, enpresa kultura aurreratu bat ari gara garatzen.



GURE KONPROMISOA | PERTSONAK

Enpresa kultura aurreratua eraikitzea

Ezagutzaren aroan, pertsonak gero eta garrantzia handiagoa dute enpresen lehiakortasunean. Pertsonen konpromisoaren, inplikazioaren eta talentuaren araberakoak dira, neurri handi batean, enpresa proiektuaren bideragarritasuna eta arrakasta. Horretarako, funtsezkoa da belaunaldi berrien nahiak eta motibazioak ulertzea, eta gure enpresa kultura eta egiteko moduak egokitzea, gure kooperatibak, etorkizunean ere, erakargarriak izan daitezzen.

Pertsonak beraien onena eman dezaten enpresa kultura aurreratua eraikitzeko ari gara lanean, talde lana eta enplegarritasuna sustatzea, aniztasuna kudeatzea, pertsonen osasuna zaintzea edota lana eta familia uztartzea ahalbidetuko duena.



Oposizio lehiaketa bidezko Talde mailako lekualdaketak

51

GURE KONPROMISOA | PERTSONAK

Enplegagarritasunean sakontzea

Gure enpresen lehiakortasuna mantentzeko, funtsezkoa da ezagutza eta teknologia berriak txertatzen joatea. Ezinbestekoa dugun eboluzio horretan gure pertsonak atzean gera ez daitezen, modu aktiboan kudeatzen dugu beraien enplegagarritasuna. Zentzu horretan, eta testuinguru berrietara behar bezala egokitzeko helburuarekin, hainbat alorretan egingo dugu lan:

Formazioa

Kooperatibak dira beren langileen birkualifikazioa kudeatzen dutenak. Horretarako, urteko formazio planak diseinatzen dituzte Mondragon Unibertsitatearekin eta inguruko lanbide heziketako zentroekin elkarlanean.

Barne promozioa

Barne promozioa da gure pertsonak beraien garapen profesionalean aurrera egiteko daukaten mekanismo nagusia. Kooperatibaren barne erregelamenduak arautzen du barne promozio profesionala, eta, hartan azaltzen denez, promoziorako lehentasunezko irizpidea da bazkideen gaitasun profesionala.


Talde osora zabaldua, oposizio lehiaketa da lanbide promoziorako erabiltzen den mekanismoa, eta prozesura aurkeztutako hautagaien gaitasunak eta merezimenduak

alderatzean datza. Taldeko bazkide guztiei zabaltzen zaizkie kooperatibetan sortzen diren promozio aukerak. 2025ean zehar, 145 oposizio lehiaketa prozesu ireki dira. Prozesu horien ondorioz, 51 pertsona aldatu dira postuz modu estrukturalen. Kooperatiben arteko lekualdaketak izan dira horietako lau.

Oposizio lehiaketa bidezko lekualdaketak

Kooperatiben arteko lekualdaketak

4



Kooperatiba barruko lekualdaketak

47



GURE KONPROMISOA | PERTSONAK

Behin-behineko lanari erantzuteko beharra

Taldetik kudeatzen ditugu kooperatibetan sortzen diren formazio eskakizunik gabeko postuetan ari diren langileen beharrak, horretarako sortuta daukagun lan poltsaren bidez. Poltsa horri esker, lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten hainbat kolektibori eman diezaiekegu enplegua. Gaur egun, LagunArorekin bat egina duten beste kooperatibetako bazkide langabeen kopuruak baldintzatzen ditu enplegua eskatzen duten kolektiboen enplegarritasun aukerak, horiek lehentasuna baitute behin-behineko enplegu eskaintzan.



GURE KONPROMISOA | PERTSONAK

Kontziliazio erantzunkidea lantzea

Kontziliazioak erantzunkidetasunari lotuta egon behar duela uste dugu. Batetik, genero guztietako pertsonok aukera eta erantzukizun berdinak izan ditzagun, bai ordaindutako lanetan, bai ordaindu gabekoetan; eta, bestetik, lana eta familia bateragarri egiteak kooperatiben lehiakortasuna oztopa ez dezan eta lan egiten duten pertsonen kalterik egin ez diezaion.


Kontziliazio neurriak

Gurasotasun baimenak

104

Emakumeak

%18



19

Gizonak

%82


85

Eszedentziak

113

Emakumeak

%35



40

Gizonak

%65

73

465 pertsonek erabili dituzte kontziliaziorako eskura dauden neurriak

Murrizketak

248

Emakumeak

%46



114


Gizonak

%54

134



Kontziliazio neurriak



Kontziliazio neurrien bilakaera	2023	2024	2025
Gurasotasun baimenak	102	97	104
Eszedentziak	90	105	113
Murrizketak	206	263	248

Murrizketen %85 zaintzarako arrazoietan oinarritzen da -213 pertsona-. Generoari erreparatuz gero, murrizketan dauden emakume eta gizonen kopurua antzerakoa da (%46 emakumeak, eta, %54 gizonak), baina Fagorreko kolektiboa aztertzen badugu, emakumeen %9k dauka jardun murriztua, gizonen %4k duen bitartean.


Kontziliazio neurriei esker,
gure kolektiboaren %5
dago zaintzarako jardunaldi
murriztuan edo eszedentzian

Eszedentziak

Zaintzarako eszedentzia

29

Emakumeak



Gizonak

%38

11

Eszedentzia negoziatua

7

Gizonak



7

Kargu publikoa betetzeko eszedentzia

2

Gizonak



2

Borondatezko eszedentzia

75

Emakumeak



22

Gizonak

%71

53

Eszedentziei dagokienez, borondatezkoak izan dira gehienak. Kasu horretan, gizonezkoak izan dira nagusi. Emakumezkoen errepertorio gero, aurten, borondatezko eszedentzien kopurua zaintzarako eszedentziekin parekatu da. Zaintzarako eszedentzien %60 emakumezkoek hartutakoa da.

Genero Berdintasuna sustatzea

Taldeko Genero berdintasun batzordeak, kooperatibetako kolektiboan eragina izango duten genero berdintasuneko eraldaketa prozesuak gidatzea eta trakzionatzea du helburu nagusizat. Horrez gain, esperientziak partekatuz eta formazioa eskainiz, sare iraunkor bat elikatzen jarraitzeko ardura ere badu.

2025ean, II. Berdintasun Plana (2025-2028) adostu dugu Fagor Taldean, lau erronkez osatutako plangintza. Honakoak izan dira urtean zehar erronka bakoitzean egindako urratsik esanguratsuenak:

1. Erronka: planaren kudeaketa egokia egitea

Aurten, Fagor Taldeko Genero berdintasun batzordearen sei bilera egin ditugu. Kooperatibetako berdintasun koordinatzaileak eta taldeko organoetako ordezkariak batu gara. Araudiaren esparrua, LGTBI legea, sexu eta genero indarkeriaren biktimak diren langileen lan eskubideak eta jazarpenaren prebentzioari lotutako lege betekizunak landu ditugu. Azkenik, kooperatibetako genero berdintasunari lotutako adierazleei jarraipen egokia egiteko tresna sortu dugu.

2. Erronka: genero berdintasunaren aldeko kultura indartzea

Talde mailako sentsibilizazio kanpaina bateratuak egin ditugu Neska eta Emakume Zientzialarien Nazioarteko Egunean, Emakume Langileen Nazioarteko Egunean eta Indarkeria

Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunean. Horretaz gain, kolektiboan eragin nahian, informazio pilulak zabaldu ditugu hileroko barne buletinaren bidez, baita hizkera ez-sexistaren erabilera sustatzeko eskuorri bat ere.

3. Erronka: genero segregazio bertikala eta horizontala murriztea

Segregazioari buruzko datuak txertatu eta aztertu ditugu Fagor Taldeko urteko memorian. Taldeko Lehendakarien Batzordean eta Kontseilu Sozialean aurkeztu ditugu.

4. Erronka: Fagor diskriminaziorik gabeko eta guztiontzako eremu seguru bilakatzea

Jazarpen protokoloa landu dugu, garrantzia berezia emanez prebentzioaren alorrari. Oro har, lan eremuan estrukturalak diren diskriminazioak prebenitu eta desagerrarazteko lege betekizunei zein Fagorreko gizarte erantzukizunari erantzuten die protokolo ereduak –sexu, genero, sexu orientazio, genero identitate, genero adierazpen eta laneko jazarpenen kudeaketari, konkretuki-. Lanketaren barruan, kooperatibei zuzendutako formazioak eta saio parte hartzaileak antolatu ditugu.

Fagorreko 4 langiletatik 1 da emakumea, kolektibo osoaren %25

2025ean egindako behin betiko bazkideen %40 da emakumea

Fagorreko kooperatibetako Kontseilu sozialetan, %25 da emakumeak; Kontseilu errektoreetan, %44; eta, Zuzendaritza batzordeetan, %26

Fagorreko bi kooperatibetako lehendakariak emakumeak dira

GURE KONPROMISOA | PERTSONAK

Euskara biziberritzeko planekin segitzea

Fagorreko euskararen plan estrategiko berriko lehen urte honetan, bertan zehaztutako hiru lan ildoek heldu diegu:

Laneko eginkizunak euskaraz garatzeko baldintzak sortzea

Gaur egungo gizarte testuingurura egokitzeko, hautaketa eta harrera faseetan euskararen aldagaia integratzea eta kontrataziorako hizkuntza irizpideak merkatu egoera berriaren arabera berrikustea izan dira lanketaren oinarri nagusienak. Fagorreko kooperatibetako kideek egoeraren analisia egin dute; marka enplegatzailetik hasi eta laneko garapenera arteko fluxu osoa aztertu da euskararen begiradatik. Gakoak diren elementuak identifikatu dira, hala nola, beharren araberrako euskara formazioa eskaintzea, arnaguneak zaintzea eta lidergo exekutiboa aktibatzea.

Erabilera handitzea maila instituzionalean, negoziokoan eta kanpo harremanetan

Fagorreko kooperatibetan euskararen erabilera areagotzeko lanean jarraitzen dugu, barrura zein kanpora begira, erabilera hobetzeko ekintzak abiaraziz eta lortutako horretan atzera ez egiteko neurriak zehaztuz. Horretarako gakoak dira, besteak beste, hizkuntza irizpideak interes taldeen arabera egokitzea, lidergo exekutiboa aktibatzea eta euskaldun eragileak sendotu eta saretzea.

Arlo honetan, garapen teknologikoak dakartzan aukerak baliatu nahi ditugu euskararen mesedetan, hizkuntzen teknologien erabilera kontzientea eginez, euskaraz sortzeko aukerak handituz eta beharra dagoen kasuetan ulermena bermatzeko bitarteko gisa erabiliz, beti ere, euskarak espazio propioak irabazteko helburuarekin.

Euskara planarekiko konpromisoa handitzea

Euskararen inguruko konpromisoa, erabilera eta legitimazioa sustatzea eta arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean erreferentzialtasuna zein trakzio lana handitzea ditugu helburu Fagorren. Horretarako, barnera zein kanpora begirako lanketak egin ditugu 2025ean, gizarte mailako ekimenetan parte hartuz -Euskaraldia, kasurako- edota beste hainbat eragilerekin batera Indeus, Euskaragileak, Euskalit hizkuntzen praktika komunitatean... parte hartuz.

Fagorren

10 langiletatik

8 gai da euskaraz

lan egiteko,

ahoz zein idatziz

Talde mailan, **%50ekoa da**

euskararen ahozko erabilera

Batzar Nagusia, Kontseilu Orokorra, Lehendakarien Batzordea eta Kontseilu Soziala **euskara hutsean egiten dira**

Urrats esanguratsuak ari dira egiten

Zuzendaritza Batzordean; gaur

egun, **%60tik gorakoa da euskararen**

erabilera

Talentua sortu eta erakartzea

Fagor marka enplegatzaile izan dadin estrategia definitzeko proiektua abiatu genuen 2024an, besteak beste, pertsonak Fagorreko kooperatibetara erakartzeko helburuz Talde mailan landu beharreko lan ildoak zehazteko. Taldeko Pertsonal batzordeak traxionatu du prozesua, eta lau fasetan egin da.

1. Testuinguru estrategikoa eta merkatukoa aztertzea.
2. Barne zein kanpo diagnostikoa egitea.
3. Pertsonen balio emateko proposamena zehaztea.
4. Enplegu-markaren estrategiak identifikatzea.

Sei ildo estrategiko definitu ditugu, eta horietako bi (hirugarrena eta bosgarrena) lehenetsi dira Talde mailan lantzeko:

1. Fagorren proiektu kooperatiboa ikusgai egitea, Taldearen balio proposamena indartuz.
2. Gizartearekiko konpromisoa.
3. Etorkizuneko belaunaldien target estrategikoetara hurbiltzea.
4. Garapen-esperientzia berezia eta bereizgarria diseinatzea.
5. Komunikazio eta posizionamendua hobetzea.
6. Marka enplegatzailearen jasangarritasuna ziurtatzea.

Taldeko organoetan aurkeztu eta oniritzia jasota, lehentasunezko ildoak lantzeko ekintza plana zehaztu da.

Helburu estrategikoko horren barruan kokatzen ditugu, hain zuzen ere, Fagor Taldeetik hasiera-hasieratik babesten ditugun elkarlaneko bi ekimen:

First Lego League

Etorkizuneko talentua sortzeko strategiari erantzunez, First Lego League (FLL) ekimenaren babesle izan gara zortzigarrenez. ZTIM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) alorra oinarri, 400 neska mutiko baino gehiago erakarri ditu FLL Euskadi-Mondragonek. Aurten, Mondragon Unibertsitatearen Arrasateko (Gipuzkoa) campusera ez ezik, Bilbon ere antolatu da ekimena.

Horietan parte hartu duten bi ikastetxe babestu ditugu; bat, Arrasaten, eta, bestea, Bilbon.

FGTM sariak

Mondragonek antolatutako ekimen honen babesle izan gara 2025ean ere. Eraldaketa energetiko-klimatikorako kategoria babestu dugu. Aurten, inoizko parte hartzerik handiena izan du ekinbideak: 53 unibertsitate ezberdinetako 340 ikaslek aurkeztu dituzte proiektuak. Bost kategoria nagusi eta hiru sari berezi izan dira osotara.

Pertsonen osasuna zaintzen dugu


Taldeko kooperatibek zuzenean kudeatzen dute lan arriskuen prebentzioan oinarrituriko pertsonen segurtasuna eta osasun zaintza. Nagusiki, Osartenekin dihardute lankidetzan.

Ostera, legez bete beharrekoa ez den alderdi asistentziala berraktibatzeke nahia indarra hartzen joan zen kooperatibetan, eta, hori horrela, 2024an urratsak egin ziren Fagor Taldeko mediku zerbitzua sortzeko. 2025ean osatu eta egonkortu zen osasun arloko lantalde teknikoa. Oro har, pertsonak arlo horretan dituzten beharrei erantzutea eta absentismoaren jarraipen estuagoa egitea ditu helburu nagusi. Medikuek, erizainak, erizain laguntzaileak eta fisioterapeutak osatzen dute horretarako lantaldea.


Osasun kudeaketarako baliabideak eskaintzearekin batera, absentismo tasak azken urteetan izan duen goranzko joerari erantzuteko neurriak aztertzen jarraitzen dugu Taldeko batzorde eta organoetan. Horren adibide da jarraipenerako adierazle zehatzak ezarri ditugula.

Adierazle nagusiek erakusten digute iaiztik hona egoera apur bat hobea izan arren, 2025ean zehar 10 bazkideko 9 baja hartu direla (maiztasun indizea).

Absentismo adierazleak



	2023	2024	2025
Maiztasun indizea	95,95	98,61	89,64
Absentismo tasa	7,273	7,765	7,714



Lanerako ezintasun egoerak aztertuz gero, ikus dezakegu bazkideko galdutako egunak murriztu egin direla eta batez besteko aldi baterako ezintasunen iraupena altuagoa dela.





Etorkizuna
hobetzeko
lanean

FAGOR

IRAUNKORTASUN MEMORIA 2025

Ingurumena





PLANETAREKIN KONPROMETITUTAKO TALDEA GARA

Larrialdi klimatikoak, eta, oro har, egun bizi dugun krisi ekologikoak, gure industria jarduera egokitzera behartzen gaituzte, bateragarria izan dadin planetaren mugekin. Horretarako, gure produktuek euren bizi zikloan ingurumenean sortzen duten inpaktua neurtzeko eta murrizteko ari gara lanean.


Betebehar etiko bat izatetik harago, gure industria egokitzea ezinbesteko baldintza da gure kooperatibek lehiakorrak izaten jarrai dezaten.

GURE KONPROMISOA

Gure produktu eta ekoizpen prozesuek ingurumenean duten inpaktua murrizteko lanean ari gara, industria jarduera planetaren muga biofisikoen barruan egon dadin.



7 ENERGIA IRISGARRIA
ETA EZ KUTSAGARRIA



12 EKOIZPEN ETA
KONTSUMO
ARDURATSUAK



13 KLIMAREN
ALDEKO EKINTZA



GURE KONPROMISOA | INGURUMENA


Karbono aztarna murriztea

Fagorreko kooperatibek, karbono aztarna murrizteko planak zehaztu dituzte. Horietan oinarrituta, Talde mailako klima-politika ari gara definitzen.

%7,5 murriztu ditugu

1. irismeneko CO₂ isuriak

2024 urteko datuekin alderatuta, %7,5 murriztu ditugu 1. irismeneko CO₂ isuriak. 2023ko datuekin alderatuta, berriz, % 9,5koa izan da murrizketa.



	2023	2024	2025
2. irismena (tCO ₂ eq)	24.888	25.124	26.302
1. irismena (tCO ₂ eq)	32.333	31.640	29.254
tCO ₂ eq/fakturaturako 100 m€	3,26	3,19	3,20
tCO ₂ eq/langile	5,73	5,85	5,61



GURE KONPROMISOA | INGURUMENA

Energia sorkuntza berriztagarria

Energia sorkuntzaren alorrean bi lan ildo ditugu zabalik. Alde batetik, gure kooperatiben teilatuetan instalazio fotovoltaikoak ari gara jartzen, eta, beste alde batetik, aukerak aztertzen ari gara sorkuntza proiektu fotovoltaiko eta eoliko handietan parte hartzeko.

Autokontsumo fotovoltaikoari dagokionean, 275 kW ditugu instalatuak, eta aurreikusten dugu 2026an beste 1,5 MW instalatzea.

Bestalde, 7,86 MWko planta fotovoltaiko bat eraiki dugu Guadalajaran (Espainia) Mondragoneko beste kooperatiba batzuekin batera –Fagor Taldeko kooperatiba ezberdinen artean dugu jabetzaren %41,43-. Horrekin, espero dugu urtean 6.164,36 MWh ekoiztea.

Planta hori esperientzia pilotua izango da, bertatik ikasi eta potentzia handiagoko proiektuak sustatzeko.

Epe luzera begira, xedea da kontsumitzen dugun energia elektrikoaren herena gure jabetzakoak diren ekoizpen azpiegituretatik lortzea, autokontsumo instalazioekin edota partaidetza jakin bat izanda parke eoliko eta fotovoltaikoetan.

**0,275 MW
ditugu
instalatuak
autokontsumo
fotovoltaikoan**


**3,3 MW
Gure
jabetzakoak
diren energia
sorkuntza
parkeetan
dugun
potentzia**



ENERGIA KONTSUMOA DEBAGOIENEAN

Gure ekoizpen planta gehienak Debagoiengan (Gipuzkoa) daude, eta, ondorioz, lurralde eskala honetan ematen da energia kontsumorik handiena. Datuek adierazten duten moduan, Fagor Taldeak Debagoiengan dituen ekoizpen planta guztiek kontsumitzen duten energiaren %70 da iturri berriztagarrikoa. Hori, gure energia kontsumoaren elektrifikazio maila handiari (%74) esker da posible. Kontsumo elektriko hori iturri berriztagarriak erabiliz asetzen da ia bere osotasunean, bai epe luzeko energia erosketa kontratuekin, baita kontsumitzen dugun energia elektriko berriztagarria dela bermatzen duten ziurtagiriekin ere.

Energia kontsumoa (MWh)



	2023	2024	2025
Elektriko berriztagarria (MWh)	243.625	260.607	236.986
Elektriko ez berriztagarria (MWh)	8.999	7.532	12.621
Gasa (MWh)	99.272	94.609	87.298
Beste erregai fosilak (MWh)	2.045	2.287	1.694

Jatorri berriztagarriko energiaren % energia kontsumo totalarekiko:

%69 2023 **%71** 2024 **%70** 2025

Energia elektrikoaren % energia kontsumo totalarekiko:

%71 2023 **%73** 2024 **%74** 2025

Debagoiengan kontsumitzen dugun energiaren %70 berriztagarria da


Energia elektriko berriztagarriaren % energia elektriko totalarekiko:

%96 2023 **%97** 2024 **%95** 2025

ENERGIA KONTSUMOA EUSKAL HERRIAN

Euskal Herrian, Debagoieneko joera errepikatzen da hein handi batean.

Energia kontsumoa (MWh)



	2023	2024	2025
Elektriko berriztagarria (MWh)	328.049	345.824	307.434
Elektriko ez berriztagarria (MWh)	9.575	7.934	13.233
Gasa (MWh)	118.057	113.367	101.706
Beste erregai fosilak (MWh)	3.063	3.314	2.647

Jatorri berriztagarriko energiaren % energia kontsumo totalarekiko:

%72 2023 **%74** 2024 **%72** 2025

Energia elektrikoaren % energia kontsumo totalarekiko:

%74 2023 **%75** 2024 **%75** 2025


Euskal Herrian **kontsumitzen dugun energiaren %72 berriztagarria da**

Energia elektriko berriztagarriaren % energia elektriko totalarekiko:

%97 2023 **%98** 2024 **%96** 2025

ENERGIA KONTSUMOA MUNDU MAILAN

Mundu mailako datuak aztertuz gero, ikusi daiteke berriztagarria ez den energia elektrikoaren ehunekoa Euskal Herrian daukaguna baino handiagoa dela. Gure helburua da atzerriko planten kontsumo elektriko iturri berriztagarriak erabiliz asetzea, baina herrialdearen arabera, oraindik orain, zailtasunak daude horretarako.



	2023	2024	2025
Elektriko berriztagarria (MWh)	386.200	416.531	376.450
Elektriko ez berriztagarria (MWh)	59.574	50.016	54.353
Gasa (MWh)	159.148	152.073	135.473
Beste erregai fosilak (MWh)	5.778	5.191	4.916
Energia kontsumoa MWh/langile	61,18	64,27	57,64
Energia kontsumoa MWh/100m€	34,77	35,03	32,93

Jatorri berriztagarriko energiaren % energia kontsumo totalarekiko:

%63 2023 **%67** 2024 **%66** 2025

Energia elektrikoaren % energia kontsumo totalarekiko:

%73 2023 **%75** 2024 **%75** 2025

Mundu mailan **kontsumitzen dugun energiaren %66 berriztagarria da**

Energia elektriko berriztagarriaren % energia elektriko totalarekiko:

%87 2023 **%89** 2024 **%87** 2025

Lehengai eta hondakinen kudeaketa zirkularra egitea

Industria iraunkorra eraikitzeak, lehengaien erabilera optimizatzea eta produktuen bizi zikloan sortzen diren hondakinak murriztea dakar. Berotegi efektuko gasen emisiotan, 3. irismeneko zati garrantzitsu bat dator lehengaien kontsumoari lotutako igorpenetatik.


Horrenbestez, aztarna gutxitzen laguntzen du lehengai birziklatuak erabiltzeak, materialen zikloa ixtearekin batera, ekonomia zirkularren filosofiarekin bat eginez.

Gure konpromisoa aintzat hartuta, helburua da material birziklatuen ehunekoa handitzea eta hondakin gutxiago sortzea.

Erabiltzen ditugun


lehengaien %75

jatorri birziklatukoa da




Lehengaien erabilera


Jatorri birziklatua (t)



Lehengaiak guztira (t)




Jatorri birziklatuko lehengaien %a totalarekiko




Hondakinak


Hondakin arriskutsuak (t)




Berreskuratutako hondakin arriskutsuak (t)




Hondakin arriskutsuetatik berreskuratutako %




Hondakin EZ arriskutsuak (t)



Berreskuratutako hondakin EZ arriskutsuak (t)



Hondakin EZ arriskutsuetatik berreskuratutako %






GURE KONPROMISOA | INGURUMENA

Ur kontsumoa murriztea

Edateko uraren eskuragarritasuna arrisku larrian egon daiteke klima aldaketaren ondorioz. Hori dela eta, gure instalazio gehienak ur eskasirik ez dagoen lurraldeetan egon eta ura gure iraunkortasun estrategiako gai materiala ez izan arren, beharrezkotzat dugu ur kontsumoaren adierazleari jarraipena egitea eta hura murrizteko neurriak hartzea.

Jarraipena egiten diogu ur kontsumoari

Ur erauzketa (m³)Ura m³ / fakturazioarekiko (100m€)Ur erauzketa langileko (m³)



Etorkizuna
hobetzeko
lanean

FAGOR 


IRAUNKORTASUN MEMORIA 2025

Gizartea

GARAPEN KOMUNITARIOA BULTZATZEN DUEN TALDEA GARA

Fagor Taldean iraunkortasunarekin dugun konpromisoa ez da barne esparrura mugatzen.

Komunitatearen autoeraketa oinarri, konprometituta gaude gure kooperatibek egoitzak dituzten lurralde eta gizarteek iraunkortasunerantz egin beharreko bidearekin.



Garapen komunitarioa bultzatzen duen taldea gara

3,1M€

bideratu ditugu gizarte ekimenetara




Fagor Taldetik, aliantzak sustatzen ditugu gizarteko gainerako eragileekin, elkarrekin egin dezagun Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzeko bidea.

EAEko kooperatiben legeak urteko irabazien %10 Gizarte funtsera bideratu beharra zehazten badu ere, ekarpena %12ra igotzea erabaki dugu Fagor Taldean, gizartearekin dugun konpromisoa berretsiz. Oro har, irismen anitzeko proiektuak babesten ditugu, betiere gizarte-eraldaketa eta iraunkortasuna helburu.

Lau eremu ezberdinetan egiten dugu lan.

%10 beharrean,
irabazien %12 bideratu
dugu Gizarte funtsera,
gizartearekin dugun
konpromisoa berretsiz





GURE KONPROMISOA

Gizartearen autoeratzeari eta eragileen arteko lankidetzari sustatzen ari gara, herri eta komunitate iraunkorrak lortzeko.

1 POBREZIA
DESAGERRARAZTEA



4 KALITATEZKO
HEZKUNTZA



11 HIRI ETA KOMUNITATE
JASANGARRIAK



17 HELBURUAK
LORTZEKO
ALIANZA




GURE KONPROMISOA | GIZARTEA

Fagorreko pertsonak Garapen Iraunkorrerako Helburuetan inplikatzeari

Erakunde mailakoa ez ezik, Garapen Iraunkorrerako Helburuekiko konpromisoa Fagor Taldea osatzen dugun pertsonena izan dadin ari gara lanean. Horretarako, hainbat aukera eskaintzen ditugu beharrezkoa den eraldaketaren parte izateko.

Hauk dira eremu honetan bultzatu ditugun ekimen nagusiak:



810.243 €

Fagor
komunitatea



FAGOR
Euskaraz

753.365 €



FAGOR
Mugi

39.878 €



FAGOR
Elkarrekin

17.000 €



FAGOR *Euskaraz*

20 urte baino gehiago daramatzagu gure kooperatibetan euskara planak sustatzen, gure bazkide langileek euskaraz lan egiteko aukera izan dezaten. Horretarako inbertsio partida barnebiltzen du Fagor Euskaraz egitasmoak.

Oro har, funts hori Taldeko zein kooperatibetako euskara biziberritzeko planak finantzatzera bideratzen dugu, horietan zehaztutako ekintza estrategikoak gauzatu eta hizkuntzaren normalizazioan urratsak ematen jarraitzeko.

Fagorreko
kooperatibetako
**euskara biziberritzeko
planak finantzatzen
jarraitu dugu.**




Etxetik lantokirako joan etorrietan mugikortasun iraunkorra sustatzeko helburuarekin, Mugikortasun plana oinarri, Fagor Mugi ekimena abiarazi genuen 2020an. Ordutik, Fagor Mugi aplikazioan erregistraturiko datuen arabera, Fagor Taldeko bazkide eta langileok 1.500.000 kilometrotik egin ditugu garraio bide iraunkorretan. Konpromiso horri esker, 193 tona CO₂ isurtzea eragotzi dugu eta, guztira, 302.500 euroko aurrezpena lortu dugu.


2025. urtea mugarria izan da proiektuarentzat: 332 pertsonak aukeratu dute Fagor Mugi aplikazioaren bidez modu jasangarrian bidaiatzea, guztira, 470.242 kilometro eginez. Urtez urteko bilakaerak erakusten du ekimenak harrera bikaina duela. Aurten, gainera, erabiltzaile eta kilometro kopuruek nabarmen egin dute gora, inoizko daturik onenak lortuz. Ondorioz, CO₂ isurien murrizketan ere, azken urteotako emaitza onenak izan ditugu.




Erabiltzaile kopurua



Kilometro kopurua




Aurreztutako CO₂ kopurua (kg)






Oinez




Auto partekatua



Bizikleta



Autobusa



Fagor Taldeko bazkide eta langileok **1.500.000 kilometrotik gora egin ditugu garraiobide iraunkorretan**

Hainbat izan dira 2025eko bilakaera positiboa eragin duten faktoreak. Batetik, Fagor Mugi ekimenaren bosgarren urteurrena ospatzeko, kanpaina bereziak egin ditugu auto partekatua eta bizikleta sustatzeko. Bestetik, Espainiako Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Energia Aurrezteko Ziurtagiriek (EAZ) bultzada erabakigarria eman diote auto partekatuari.

Garraiobideen bilakaera: Auto partekatuaren gorakada

Auto partekatuak izan du bilakaerarik nabarmenena: 2024ko datuekin alderatuta, hirukoiztu egin dira kilometroak (lehen postura pasatuz) eta erabiltzaile kopurua. Hazkunde honek eragin du, nagusiki, kilometro kopuru osoaren igoera orokorra. Dena den, garraiobide guztiek (bereziki oinezkoenak eta autobusarenak) gora egin dute erabilera zein distantzia datuetan.

Kilometro kopuruaz harago, erregistratutako jarduerak erakusten dute bizikleta dela oraindik ere lanerako garraiobiderik erabiliena (16.436 jarduera). Ondoren datoz oinezkoak (12.839 jarduera) eta auto partekatua eta autobusa: 4.500 jarduera inguru bakoitzak.

Pizgarriak eta sariak: Parte hartze handiagoa


Erabiltzaileen konpromisoa saritzeko, Fagor Mugi aplikazioaren bidezko pizgarrien katalogoa berriro dugu bosgarren urteurrenean, jantokietarako txartelak, ibilgailu elektrikoen kargak eta bizikleta dendentzako bonuak gehituz.

2025ean, 158 lagunek trukatu dituzte kilometro jasangarriak sariengatik. Guztira, 12.800 euro bideratu ditugu pizgarri horietara (2024an, 7.410 euro izan ziren). Gipuzkoako MUGI txartela kargatzea izan da, aurten ere, gehien eskatu den saria.

Karga-puntuak

Bost urte bete dituen dinamika horrekin batera, 2024an ahalegin berezia egin genuen ibilgailu elektrikoen karga puntuak instalatzeko. Inbertsio horri esker, 2025ean zehar 66 puntu izan ditugu martxan, eta guztira 2.000 karga operazio baino gehiago erregistratu dira. Karga horiek 150.000 "kilometro berde" egitea ahalbidetu dute (zuzeneko isuririk gabeak).

Gainera, datuek erakusten dute gorakada hori urteko bigarren seihilekoan pilatu dela, beraz, aurreikus daiteke datozen ekitaldietan kopuru horiek modu iraunkorrean hazten jarraituko dutela.



FAGOR

Elkarrekin

Duela lau urte, Fagor Elkarrekin dinamika abiarazi genuen Fagor Taldeko kooperatiben arteko komunitatea sartzeko eta indartzeko. Haren bidez, elkartasun kanpainak, gizarte eragileekin elkarlan dinamikak, boluntariotza lanak... abiarazi ditugu azken urteotan 2025ean, honako ekimen hauek nabarmendu dira:

Boluntariotza eta elkartasun kanpainak

- Boluntariotza kanpainak: Fagorkideei dei egin diegu [First Lego League](#) eta Mundukide proiektuetan boluntario gisa parte har dezaten.
- Elkartasun kanpainen sustapena: babes aktiboa ematen jarraitu dugu [Errigora](#), [Harreman Denda](#) eta Mundukide bezalako egitasmoei.

Elikagai bilketa

Parte hartze aktiboa eskatzen duten ekimenekin batera, aurten, hirugarrenez, elikagai bilketa masiboa antolatu dugu Fagorreko kooperatibetako planta guztietan [Zaporeak](#) elkarrekin elkarlanean. 1.400 kilogramo elikagai bildu ditugu, eta lagungarri izan da Greziako Lesbos uharteko errefuxiatuei otorduak eskaintzen jarraitzeko. Aurten, 2023ko zifretara itzuli gara (2024an 1.000 kilogramo bildu ziren), gure komunitatearen elkartasun indarra berretsiz.

Mundukiderekin lankidetzaz

Mundukide Fundazioaren 25. urteurreneko testuinguruan, bazkideek interkooperazio proiektuetan parte hartzeko baldintzak eguneratu ditugu, eta lankidetzaz hitzarmen berria sinatu dugu.

EITB Maratoia


Fagorreko kideen ekarpen indibiduala bultzatzeaz gain, Fagor Taldetik zuzeneko diru laguntzak bideratu ditugu hainbat gizarte gaietara. Horien artean dago gaixotasun kardiobaskularren ikerketa sustatzeko EITB Maratoiari egindako 12.000 euroko ekarpena.

Zaporeak elkarrekin elkarlanean, 1.400 kilogramo elikagai bildu ditugu Greziako Lesbos uharteko errefuxiatuen kanpamendurako

GURE KONPROMISOA | GIZARTEA

Debagoienaren garapen iraunkorra sustatzea

Debagoiengan daude gure kooperatiben egoitza sozialak eta ekoizpen zentro gehienak. Hori horrela, Fagor Taldeak konpromiso irmoa eta hurbilekoa du eskualdearekin. Bailaran bultzatzen ditugun ekimenek epe luzeko esku hartze estrategia bati erantzuten diote, beraz, bertara bideratzen dugu gure baliabide ekonomikoen zati handiena.



1.820.632 €

Debagoiena

2030 Garapen Iraunkorrerako Sarea **784.755 €**

 **GIZABIDEA FUNDAZIOA** **784.755 €**

Tokiko **elkartegintza** **251.122 €**

GURE KONPROMISOA | GIZARTEA

Honako hauek dira eskualdean sustatzen ditugun ekimen nagusiak:

Debagoiena 2030

Debagoienaren garapen iraunkorra bultzatzeko sorturiko sarea da Debagoiena 2030. Eskualdeak iraunkortasunerantz egin beharreko trantsizioak bailarako eragile guztien arteko elkarlana (hezkuntza zentroak, erakunde publikoak, enpresak eta gizarte eragileak) eskatzen duela sinetsita, sare hau sustatzeko apustu estrategikoa egin genuen 2018an. Helburu nagusia herri eta komunitate iraunkorrak lortzea da, ondorengo lehenetsuneko arloetan eraginez:

- Trantsizio energetikoa.
- Mugikortasun iraunkor eta adimentsua.
- Tokiko elikagaien ekoizpena eta elikadura burujabetza..
- Ekosistemen eta biodibertsitatearen zaintza eta berreskurapena.
- Laneratze bidezko gizarte kohesioa eta inklusioa.

Energia komunitateak

2025. urtean zehar ere, arreta berezia jarri dugu komunitate energetikoa sustapenean Energiaren puntua ekimenaren bitartez. Horrez gain, eskualdean

sortzen ari diren komunitate energetikoen bazkide laguntzaile izateko konpromisoaren baitan, Eskoriatzako Esnargi kooperatibako bazkide laguntzaile egin gara 2025ean. Parte hartze berri hau, jada Leintz Bailarako Ekiolan, Ixotzenen eta Berenerren ditugunei batu zaie. Bestalde, Debagoienak trantsizio energetikoaren esparruan egin beharreko bidea modu partekatuan zehazteko Argitzen deliberazio prozesuan parte hartu dugu.

Elikadura burujabetza

Elikaduraren esparruan, Debagaraia Landa Garapenerako Elkartearekin eta Ereindajan kooperatibarekin batera, Tokixan ekimena sustatu dugu. Debagoieneko elikadura burujabetza du helburu Tokixanek, eta, horretarako, bailarako jangelak bertan ekoiztako produktuekin hornitzeko ari da lanean.

Era berean, Fagor Ederlan kooperatibaren Bergarako jangelaren eraldaketarekin jarraitu dugu, eta tokiko elikagai gehiago sartu ditugu eguneroko menuetan.

Mugikortasun iraunkorra

Urrats berriak egin ditugu mugikortasun iraunkorraren alorrean, tartean, interbentzio integral bat gauzatuz

Arrasateko Arima Zubi gunen inguruan: Plaza Bizi. Eragile ezberdinen inplikazioarekin, soluzioak bilatu gura dira eremu horrek dituen mugikortasun arazoentzako. Espero da proiektua irakasgai izatea beste eremu batzuetarako edota politika publikoetarako.

Elikadura burujabetzaren esparruan, **Debagaraia Landa Garapenerako Elkartearekin eta Ereindajan kooperatibarekin batera, Tokixan ekimena sustatu dugu**



GURE KONPROMISOA | GIZARTEA

Gizabidea Fundazioa

Gizabidea Fundazioaren bidez, 40 urte baino gehiago daramatzagu lurraldeko hezkuntza eragile kooperatiboekin lankidetzan, eskualdeko haurrei eta gazteei kalitatezko hezkuntza eskaintzeko beharrezkoak diren azpiegituren finantzazioan lagunduz.

Urte luze hauetan guztietan Mondragon Unibertsitatearen garapenean jardun du bereziki Gizabidea Fundazioak, hainbaten artean, ulertu duelako hezkuntza zentroa eragile estrategiko dela Debagoiena eskualdearen eta haren enpresa ehunaren garapenerako.

2022an, hainbat hitzarmen sinatu genituen Mondragon Goi Eskola Politeknikoarekin (MGEP), Mondragon Unibertsitateko HUHEZIrekin eta Arizmendi Ikastolarekin, hamarkadako epealdian diruz lagunduko diren proiektuak zehaztuz.

Tokiko elkartegintzaren sustapena


Diruz laguntzen dugu Fagor Taldeko kooperatibak dauden herrietako elkarteen jarduna.

Gizabidea Fundazioaren bidez, **40 urte baino gehiago daramatzagu** lurraldeko hezkuntza eragile kooperatiboekin lankidetzan

GURE KONPROMISOA | GIZARTEA

Euskal Herriaren garapen iraunkorra helburu duten proiektuak laguntzea

Euskal Herria da Fagor Taldearentzat hurrengo eskala naturala. Alor horretan, nagusiki, Fagor Herrigintza lankidetzaren bidez banatzen du diru laguntzaren zatirik handiena.



143.646 €

Euskal Herria

FAGOR
Herrigintza

120.000 €

Bestelako
laguntzak

23.646 €

Fagor Herrigintza

Garapen Iraunkorrerako Helburuei erantzun propioa eta berritzailea ematen dieten proiektuak babesteko lankidetzaren programa da Fagor Herrigintza. Euskal gizartean sortutako ekimenekin elkarlanean aritzeko bitartekoa da, eta hiru laguntza nagusi banatzen ditugu urtero deialdi publiko bidez.

2025ean, programaren hirugarren edizioan, 38 proposamen jaso ditugu Fagor Taldearen webgunearen bitartez. Proiektuek oinarriak betetzen zituztela egiaztatu eta finkatutako irizpideen arabera baloratu ondoren, Gizarte eraldaketa batzordeak bederatzi egitasmo hautatu zituen bozketa faserako (hiru laguntza kategoriatan bakoitzeko).

Azkenik, Fagor Taldeko kooperatibetako kideek bozka bidez erabaki zuten zein hiru proiektu lagundu. Aurten, parte-hartzea historikoa izan da: Fagorreko kooperatibetako bazkide diren 1.585 pertsonen eman dute botoa, hau da, kolektibo osoaren ia %40k.

2025ean, ondorengo hiru proiektuek jaso dituzte Fagor Herrigintza bidezko laguntzak:

→ **60.000 euro. ARIZARI HEZKUNTZA ELKARTEA.**

Mugarik Gabeko Ikasgelak, Arizmendi ikastola: ikastetxeetan baja emandako ekipo informatikoak berri eta Maroko, Sahara eta Senegalgo eskoletara eramateko proiektua.

→ **40.000 euro. HAIZE BERRI AISIALDI ELKARTEA.**

Aniztasun funtzionala duten gazteekin aisialdi eta kultur ekintzak antolatzeko elkarte, gainerako gazteek dituzten aukera berdinak eskaintzeko.

→ **20.000 euro. SHIFA ELKARTEA.**

Tindufeko saharar errefuxiatuen kanpamenduetara espedizioa, arreta medikoa eta material sanitarioa emateko.

Laguntza horiek bideratzeaz gain, bestelako lankidetzaren aukerak aztertzeke konpromisoa hartu dugu Fagor Herrigintzaren deialdira aurkeztu diren eragileekin.

Euskal Herri mailako bestelako proiektuak


Fagor Herrigintza lankidetzaren programatik harago, Euskal Herriko eskalan, badira 2025ean Fagorren laguntza jaso duten bestelako elkarteak, lurraldearekin dugun konpromisoaren adierazgarri.

Fagor Herrigintzaren deialdi berrian, **askotariko gizarte eragilek aurkezturiko 38 proiektu proposamen jaso ditugu**

GURE KONPROMISOA | GIZARTEA


Garapenerako lankidetzan sakontzea

Elkartasuna da gure oinarrietako bat, horregatik, esperientziatik ikasitakoa elkarbanatzea ezinbestekoa da guretzat. Horixe da mundu mailako eskalan egiten duguna, Euskal Herriko esperientzia kooperatibotik ikasitakoa elkarbanatu, eta beste leku batzuetan garatutakoa bueltan ekarri.



313.902

Mundua



mundukide
cooperación cooperativa

303.902 €



10.000 €

GURE KONPROMISOA | GIZARTEA

Mundukide Fundazioa

Kooperatibismoaren bokazio unibertsalari erantzuteko eta garapen bidean dauden herrialdeei garapen komunitarioko prozesu endogenoak sortzen laguntzeko, Mundukide Fundazioa sortu genuen duela hamar urte baino gehiago Mondragon korporazioko beste kooperatiba batzuekin eta tokiko hainbat Gobernu Kanpoko Erakunderekin batera.

Batez ere, Mozambiken eta Brasilen dihardu Mundukidek, eta urteak daramatza, filosofia kooperatiboarekin koherentzian, bertako komunitateen garapen endogenoa sustatzen.

Patronatuko kide gara, eta modu aktiboan hartzen dugu parte Fundazioaren erronketan. Haren jarduera finantzatzeaz gain, gure kooperatibetako bazkideek aukera dute Mundukidek programak dituen herrialdeetan kooperante gisa parte hartzeko.

Garabide

Hizkuntza lankidetzan diharduen erakundea da Garabide, euskararen berreskurapen prozesuan izandako ikasketak beste herrialde batzuetako prozesuekin partekatuz eta haien esperientzietatik ikasiz. Hizkuntza gutxituen komunitateekin egiten du lan, horien garapen sozioekonomikoa hizkuntzaren berreskurapen prozesuarekin aberastu nahian. Urtero lez, horretan laguntzeko ekarpena egin diogu.

Mundukide Fundazioaren jarduera finantzatzen dugu, eta **gure bazkideek aukera dute kooperante gisa jarduteko**





www.fagor.eus

